





IRENTSI  
BIZITZA  
INOIZ JAN EZ  
BAZENU BEZALA.



## OPEL CORSA BERRIA.

BIZITZA LABURREGIA IRUDITZEN ZAIZU KONPROMISOAK HARTZEKO, HORREGATIK UNE ORO APROBETZATZEN DUZU ETA BEHI BAKARRIK AURKEZTEN DIREN AUKEREI HELTZEN DIEZU. OPEL CORSA BERRIAK ERABAT ASEKO ZAITU: LEKU ZABALAGOA, POTENTZIA HANDIAGOA, SEGURTASUN GEHIAGO, DIBERTIMENDUA ERUZ. BESTE GUZTIA ZURE ESKU DAGO.

**BIZITZAZ GOSE.**

[WWW.NUEVOCORSA.COM](http://WWW.NUEVOCORSA.COM)

**OPEL**

**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa z/g. Telefonoak: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

HELBIDE BERRIA: San Andres auzoa 10-D. Telefonoa: 943 79 05 86.



# Ez hanka eta ez buru

Joseba Lezeta / Kazetaria

**E**zer baino lehen, esan behar dut Athleticzalea naizela. Ez dakit horrek Realari buruzko iritzia emateko sinisgarritasun osoa kentzen didan edo ez: beharbada, bai. Ez da nire asmoa inoren etxea konpontzea, batez ere zuri-gorriker konpondurik badugulako gurean. Nik ez dut hain urruti ikusten Real. Baina, hor konpon. Realeko agintariek hartu dituzten hainbat erabakik ez dute ez hanka eta ez buru: hamazazpi jardunalditan hiru entrenatzaile; Urangak presidente kargua utzi eta handik hamabost egunera entrenatzaile berria fitxatu... bi urte eta erdirako, ondoren etorriko diren erabakiak baldintzatuz; Administrazio Kontseiluaren ardura lehenbailehen hartzeko gertu dagoen lagun taldea agertu bada ere, zergatik martxoan arte eutsi euren postuari jada dimititu duten presidentek eta kontseilariek?

Toshack begi onez hartu dute Realzaleek. Bigarren mailara ez jaisteko azken heldulekua da, ez dute besterik ikusten. Galestarrak berehala hartu du guztiaren ardura, berak egin ohi duen bezala. Etorri aurretik, badaezpada, bere arrakasta guztiak bildu zituen artikulu batean: nik hau

egin dut Donostian; beste hau Madrilén; Turkian beste horrenbeste; Real Madrilek berari esker irabazi zuen zortzigarren Europako Kopa; eta Saint Etiennen ezin zen gehiago lortu hain epe motzean. Atxabaltar batek horiek guztiak idatzi balitu, herriari iseka egingo zioten, baina Toshackek idatzi ditu eta txaloak entzun ditu.

Prensaurrekoetan ez da inor aspertuko, esaldi xebererik ez baita faltako. Egunkarietan izango da zer irakurria.

Baina, Realaren arazo nagusia ez da, nire ustez, entrenatzailea. Gaur egungo klub batek ezin du bere etorkizuna utzi

«Baina, Realaren arazo nagusia ez da, nire ustez, entrenatzailea. Gaur egungo klub batek ezin du bere etorkizuna utzi egitura osoko posturik aldakorrenean dagoen gizonaren esku»

egitura osoko posturik aldakorrenean dagoen gizonaren esku. Toshack etorri da eta hankaz gora jarri ditu Realeko beste entrenatzaile batzuk hartutako erabakiak. Jokatu eta poliki-poliki futbolari bezala egiten joateko Eibarri utzitako Xabi Alonso eta Joseba Llorente Donostiara eraman ditu berriro. Zenbat partidu jokatuko dituzte Realean? Luzera, mesederako izango al da bi jokalaririk haurtzat eta, ondorioz, Realarentzat? Zaleen aurrean harrobiaren alde dagoela erakusteko hartu al du erabaki hau Toshackek? Zertarako nahi du Xabi Alonso taldean, beste pibote bat fitxatzeko asmoa baldin badu?

Toshack etorri da eta ez omen du ezaigutu ere egiten Demetradze, Realaren historian egindako fitxaketarik garestiena. Eta georgiarra duela hiru aste heldu zen Donostiara... Toshack etorri da eta zer gertatuko zaio Periko Alonsorekin titular izandako Vegari? Clementerekin Gurrutxagak balio zuen; Alonsorekin, ez; eta Toshackekin? Lesionatu ez balitz, bai.

Martxoan presidente berria aukeratzeko badute, Toshackek Realean jarraituko du ala ez? Horrela ez dago talde bat egiterik.<

barruan



**Iñazio Larrañaga**

Sirimiri jatetxekua

«Sukaldarixaren lana gogorra da, oso sakrifikaia: ordu asko eta jaiegun gutxi»

13.



**Iñaki Ugarteburu**

Udaleko kirol teknikaria

«Ahalik eta azkarren zabalduko ditugu igerilekuak; otsailean izatea espero dugu»

14.



**Usoa Mendikute**

Artista

«Formari baino, koloreari garrantzia handiagoa eman diot azken margolanetan»

21.

# AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



## BEKAK

**Udan ikasteko bekak.** Atzerriko Gaietarako Ministerioa. Hungaria eta Grezia. Goi-mailako tituludunak edo azken urteetako ikasleak. Hango hizkuntza jakitea. Epea: urtarrilak 31. **2001/02. urtean atzerrian ikasteko bekak.** Udan ikasteko bekak.

Atzerriko Gaietarako Ministerioa, Txekia, Polonia, Turkia eta Suedia. Goi-mailako titulatuak edo azken urteetako ikasleak. Hango hizkuntza jakitea. Hainbat epe.

## IHARDUERAK

**Ikasle, gazte eta irakasle txartel Internazionalak.** Garraioetan, museoetan, eskiatzen... deskontuak izateko. Epea: 2001eko urtarriletik abendura.

## IKASTAROKAK

**Banaketa. Arrasateko Udaleko Emakume Saila.** Emakume eta gizonen artean lan eta arduren banaketarako tailerra. Epea: urtarrilak 15

**Informatika.** Ibainet. Berezi elkarrean eta irakaskuntzan mugitzen diren pertsonen zuzendutako euskarazko informatika- ikastaroa.

Epea: 2001eko urtarrilak 22

**Sexu-abusuak.** Haurralde Fundazioa. Sexu-abusuan antzemana eta jakinarazteari buruzko ikastaroa. Haurren eta nerabeen ebaluazio kliniko eta/edo psikosozialean esperientzia izateko beharrezkoa da. Epea: 2001eko otsailak 15

## LAN-ESKAITZAK

**Lau Arkitektu.** Bizkaiko Foru Aldundia. Epea: urtarrilak 20

**Hiru Antolakuntza Teknikari.**

Bizkaiko Foru Aldundia. Industria ingeniaria. Epea: urtarrilak 20

**Informatiko bat eta operadore bat.**

Donostiako Udaleko Informatika Zentroa. Epea: urtarrilak 15

**Sukaldari laguntzailea.** Hernaniko

Gizarte Osasun eta ongizatearen Udal Patronatua. Eskola ziurtagiria. Epea: urtarrilak 15.

## KARNETAK

Nazioarteko Aterpekie, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatz Gazte Informazio Gunera.


## INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak  
Telefonoa: 943 77 91 57  
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net  
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00  
Larunbata: 09:30-13:30

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



### Bandara

Hegazti edo arrain taldea.

– *Uso bandara galantak pasau die.*

Pertsonen ere bai:

– *Jeseus, aura zan guardazobill bandaria.*

## hau giroa!

San Juan uzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

|                               | Temperatura<br>maximoa | Temperatura<br>minimoa | Euria                 |
|-------------------------------|------------------------|------------------------|-----------------------|
| <b>Abenduak 4, eguena</b>     | 18 °C                  | 7 °C                   | 0,3 l/m <sup>2</sup>  |
| <b>Abenduak 5, eguakitz</b>   | 20 °C                  | 12 °C                  | 15,7 l/m <sup>2</sup> |
| <b>Abenduak 6, zapatua</b>    | 9 °C                   | 7 °C                   | 5 l/m <sup>2</sup>    |
| <b>Abenduak 7, domeka</b>     | 9 °C                   | 4 °C                   | 23,4 l/m <sup>2</sup> |
| <b>Abenduak 8, astelehena</b> | 9 °C                   | 4 °C                   | 1,1 l/m <sup>2</sup>  |
| <b>Abenduak 9, martitzena</b> | 13 °C                  | 1 °C                   | - l/m <sup>2</sup>    |
| <b>Abenduak 10, eguaztena</b> | 17 °C                  | 11 °C                  | 0,6 l/m <sup>2</sup>  |

## mezak

### Santa Marina

Domekak: 11:00, 13:00.  
Zapatuak: 19:00.  
Lanegunak: 19:30.

### San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

### Osintxu

Domekak: 11:30.  
Zapatuak: 19:00.

### Elosu

Domekak: 10:00.

### Ubera

Domekak: 10:30.

### San Juan

Domekak: 11:00.

### Basalgo

Domekak: 13:00.

### San Prudentzio

Domekak: 10:30.

### URTE-MEZAK

#### Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

#### San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

## urbanoa

### San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

### Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolonia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

## kontuan hartu...

### FARMAZIAK

EGUAKITZA 12:  
MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15  
ZAPATUA 13:  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74  
DOMEKA 14:  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74  
ASTELEHENA 15:  
PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87  
MARTITZENA 16:  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05  
EGUAZTENA 17:  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63  
EGUENA 18:  
MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15

### OGIA

DOMEKA 14. .... Mizpildi

### TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK  
Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40  
Bergarako udaltzaingoa. .... 943 77 91 06  
Antzuolako udaltzaingoa. .... 943 76 62 46  
Ertzaintza. .... 943 76 53 40  
Osasun Etxea. .... 943 76 24 40  
Angiozarko medikua. .... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua. .... 943 76 62 23  
GARRAIOAK  
Taxiak. .... 943 76 19 50  
UDALA  
Bergarako udaletxea. .... 943 77 91 00  
Antzuolako udaletxea. .... 943 76 62 46  
Kultur Etxea. .... 943 77 91 58  
Liburutegia. .... 943 77 91 62  
Kirolegia. .... 943 76 56 41  
Mizpirualde Egoitza. .... 943 76 13 68  
BESTELAKOAK  
Epaitegia. .... 943 76 14 92  
Erregistroa. .... 943 76 13 15  
Jardun. .... 943 76 36 61  
Idolaz. .... 943 76 65 08  
Jubilatuaren Etxea. Bergara. .... 943 76 21 40  
Antzuolako jubilatuaren elk. .... 943 76 62 71

### ZOKKETAK

ATHLETIC CLUB PEÑA  
Saskia. .... 844 zkia.  
BATZOKIA  
Musika ekipoa. .... 1.470 zkia.  
Saskia. .... 3.137 zkia.  
BEDELKAR  
100.000 pezetako bono bana, zenbaki hauei: 43.259, 125.537 eta 67.861.  
LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA  
Mendiko bizikleta. .... 9.740 zkia.  
Bi lagunendako afaria. .... 2.207 zkia.

**zorionak!**



**Mikel Larrañaga**  
16an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Miren eta Ainhoa.



**Deiane Perez**  
12an 9 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Hodei.



**Maialen Ibarra**  
13an urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Aitzol Gutierrez**  
13an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta anaia Mikel.



**Inazio Dulanto**  
15ean 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Andoni Elortza**  
15ean 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Iker Elizburu**  
12an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta familiakoak.



**Ane Morillas**  
15ean 9 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Iosu Pueyo**  
15ean 4 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama, Borja eta Ion.



**Aiora Etxezarreta**  
13an urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Maider Aguila**  
15ean 7 urte.  
Urte askotarako eta muxu handi bat!  
Etxekoak.



**Marta Zubia**  
18an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Maria.



**Ion Zabaleta**  
17an 24 urte.  
Urte askotarako eta muxutxo bat!  
Etxekoak.



**Andoni Nafarrate**  
12an 14 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Marian Rodriguez**  
18an urtebetezeta.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Arnaitz Garai**  
16an 16 urte.  
Urte askotarako!  
Lagunak.



**Ana Fuentes**  
14an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Ander eta gurasoak.

*Hurrengo alean,  
urtarrilaren  
19tik 25era  
bitartekoan zorion  
agurak  
argitaratuko  
ditugu.*



**BERRIGARA GIDA 2001  
KALEAN DA**

Aste honetan banatuko da Berrigararekin batera Berrigara Gida 2001, Bergara eta Antzuolako telefonoak biltzen dituen liburuxoa. Profesional, lantegi, denda eta abarren telefonoak aurkituko dituzue bertan, partikularrenekin batera. Gida etxean jasotzen ez baduzue eta eskuratzeko interesa izanez gero, deitu Berrigarara, 943 76 03 97 telefonora edo pasa zaitezte erredakziotik bertatik (Irizar jau-regia: Barrenkalea, 33).

%

BERRIGARA

eraino



# MAYA

Oinetakoak Arropak Zilarra

Irala kalea z/g

## Mariaren Lagundia Ikastolako

# Ateak zabalik

Urtarrilaren 20an

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 18:30era

Zaindutako jolasgunea egongo da umeendako



Mariaren  
Lagundia  
Ikastola

200 urte  
Bergaran  
heziketa-lanean



Mariaren Lagundia Ikastola. Espoloia, 1. Tf. 943 76 25 40.

# batasuna prozesua

## **BIGARREN BATZARRA:**

"Eraiki nahi dugun Herritarren Batasuna" txostenaren bigarren zatia, hau da: Erakunde berria.

Batzar honetan lehenengo txostenari aurkeztu dizkieten bost ponentzien artean bat aukeratu beharko dugu.

Urtarrilaren 17an, asteazkena, arratsaldeko 7etan Elementaleko aretoan.

## **HIRUGARREN BATZARRA:**

"Ildo politikoa" txostenaren lehen zatia, hau da: Egungo egoera politikoa, ekonomikoa eta soziala Euskal Herrian.

Urtarrilaren 24an, asteazkena, arratsaldeko 7etan Elementaleko aretoan.

## **LAUGARREN BATZARRA:**

"Ildo politikoa" txostenaren bigarren zatia, hau da: Fase horretarako Ildo politikoa.

Laugarren batzar honetan, bigarreanean bezala, Ildo politikorako aurkezten diren hiru ponentzien artean bat aukeratu beharko dugu.

Urtarrilaren 31n, asteazkena, arratsaldeko 7etan Elementaleko aretoan.

Txostenak eskuratu nahi badituzu, Arrano tabernan eska ditzakezu.

Bergarako Batasuna Batzordea.

euskalherrikoezkertiarren  
**batasuna**

ongi etorriak  
batasunaren  
prozesura

## Liburutegiak ordutegia zabaldu du, erabiltzaileek horrela eskatuta

**Ordubetez luzatu du ordutegia Udal Liburutegiak. Bestalde, uztailean ere astelehen eta eguen arratsaldez irekita egongo da. Zerbitzua hobetu eta erabiltzaileen eskarriari erantzuteko hartu dute erabakia arduradunek.**

Abendua arte goizeko 10etan irekitzen zituen atak. Urtarriletik aurrera goizeko 9etan irekitzen hasi dira; ordubete luzatuko da, beraz, liburutegiaren ordutegia.

Erabiltzaileen eskariz, eta horien beharrei erantzuteko, hartu da erabaki hori. Ondorioz, hauxe izango da ordutegi berria hamar urteren ondoren: astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara, eta zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara.



Liburutegiak, 2.000 bazkide ditu: 1.100 ikasleak eta 900 bestelakoak.

Bestalde, udari begira ere izango du aldaketarik ordutegiak: uztailean, orain arte, goizez ireki bada ere, aurtan arratsaldez ere irekiko da astelehen eta eguenetan. Uztaileko ordutegia, hortaz, honakoa izango da: 08:00etatik 13:30era, eta astelehen eta eguenetan, 16:00etatik 20:00etara. Izan

ere, uda aldean jendeak irakurtzeko denbora izaten duela kontuan izanda, maileguan liburuak uzteko aukera zabalteko hartu dute erabaki hori.

Ordutegia zabalteak, hiru urtez, jardun osorako hirugarren langilea kontratatzea ekarri du. Deialdia amaituta, egunotan lan-

posturako probak egiten ari dira.

### ZERBITZU AKTIBOA

Mila Agirrezabal liburutegiko arduradunaren arabera, liburutegikoa zerbitzu aktiboa izatea nahi dute: hau da, gero eta erabiltzaile gehiago izatea. Horren haritik, 2000. urtearen balorazio positiboa egin du. Batez beste, 725 mailegu egin dira hilabetearen, eta gaur egun 2.000 bazkide ditu.

Bazkide horietatik 1.100 ikasleak dira, eta 900, ikasle ez direnak. Azken datu horretan dago, batez ere, liburutegiaren erronka, Agirrezabalen esanetan. Liburutegiko arduradunak azaldu duenez, "ikasle ez direnen artean liburutegia erabiltzeko ohitura zabaldu nahi" dute, eta urtetik urtera gero eta gehiago hurbiltzen dira.

## Kultura eta kirol batzordeetan zinegotzi berriak

**Nere Amaia Zabala** da Kultura batzordearen barruan dagoen Jarduerak, Taldeak, Gazteria eta Jaiak azpibatzordeko buru berria.

Orain arte, Kirol batzordearen ardura zuen, baina hura utzi eta aipatutako azpibatzordeaz arduratuko da au-

rerantzean. Horrela, Iñigo Alberdik urte amaierarekin batera utzitako ardura beteko du Nere Amaia Zabalak.

Bestalde, Alberdik EA-EAJren zinegotzi kopuruan utzitako hutsunea Xabier Zabaletak bete du. Zinego-

tzi karguarekin batera, Nere Amaia Zabalak laga duen Kirol batzordeko ardura ere Xabier Zabaletak hartu du. Zabaleta EA-EAJren zerrendako hurrengo zen 99ko udal hauteskundeetan koalizioak aurkeztutako zerrendan.



Nere Amaia Zabala.

### IKUSBI

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

### Dixula

BOKATAK  
DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
Tf. 943 76 44 95

# EH: «Ituna haustea kalterako izan da»

**Euskal** Herritarrok-eko udal taldeak 2.000. urteko udaletxeko dinamizari buruzko balantzea egin zuen joan zen eguaztenean. EH-ren esanetan, "eragin negatiboa baino ez du izan 1999. urtean abertzaleen artean sinatutako gobernu akordioa apurtu izanak. Eta ez dugu uste EAJk eta EAK EH gobernutik kanpo uzteak euskal gatazkaren konponbidean aurrerapausoak ematen lagundu duenik".

Erabaki politikorik horrek udal kudeaketan eragin zuzena izan duela aipatu zuten EHko kideek. Hiru al-



Ehko zazpi zinegotzietatik sei, eguaztenean, balantzearen azalpenean.

derdiak gobernuan zeudenean batzordeak 15 zinegotziren artean banatzen ziren. Gaur egun, batzorde

kopuru berbera zortzi zinegotziren artean banatzen da, eta egoera bitxiak ematen direla gaineratu zuten:

"Bi zinegotzik hiruna batzorde dituzte". Ondorioz, zenbait batzorderen funtzionamendua txarra dela azaldu eta salatu zuten: esaterako, oraindik ez dira aurrekontuak batzordeetan landu, lehen EHrenak ziren Euskara, Hezkuntza eta Ingurumen batzordeen dinamika moteldu egin da...

Aurrera begira, EHk herri programa berreskuratzeko asmoa duela azaldu zuen. Izan ere, udal akordioa sinatzeko, programako hainbat gai albo batera utzi behar izan zituzten.

## Seminarioko lokala bota dute kale berria egiteko

**Joan zen hilaren 26 eta 29 bitartean** Seminarioko lokala bota zuten. Azken urteotan herriko zortzi rock taldek erabiltzen zuten lokal hori, entseatzeko. Orain, goiko geltokiko geroak utzi die Udalak entsea dezaten.

Lokala oso egoera kaskarrean zegoen, eta udalak aspalditik zuten botatzeko asmoa. Lokalaren atzealdean dagoen zentral elektrikoa ere bota egingo dute.



**Bolu**  
liburutegia

Enmarkazioak

Ispiluak neurritan

Zurezko artikulua

Bergarako oleo eta

lumaxoak

Koldo Eleizalde 1, behea  
Tf. 943 76 70 60

*Agirrebeña*

JATETXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

**MIZPILDI**



**OKINDEGIA**

Matxiategi 1  
943 76 72 73

Mizpildi 8  
943 76 12 32




# Ekialdeko saihesbideko lanak martxoan hasiko dira

**Bergarako** ekialdeko saihesbidea egiteko lanak Construcciones Mariezkurrena SL enpresari esleitu dizkio Diputazioak. Adjudikazioa 2.584.408.777 pezetan egin da, eta lanok 18 hilabetea amaitzea espero dute.

Saihesbidearen ibilbidea ekainean onartu zuen diputatuaren kontseiluak. Beasain-Bergara-Durango zeharkako korridorearen zati bat da, eta bi xede ditu Diputazioaren arabera: batetik, eskualde eta lurraldeak lotzea; bestetik, San Antonio eta Torrekua pareko bidegurutzean sortzen diren zirkulazio arazoak ekiditzea.

Bideak 2,1 kilometro izango ditu. Horri Teileria eta Oruesagastiko lotuneen 1,2 kilometro gehitu behar zaizkio. Bide lasterrek izan ohi duten ibilbide eta ezauzgarri izango ditu: bi bide eta bide bazter zabalak.

Saihesbidea Bergarak Zumarraga aldetik duen sa-



Argazkiko mendian barrena 300 metroko tunela egingo da.

ARTXIBOA

rrean hasiko da; 300 metroko tunela izango du Zubiarre auzoaren atzeko aldetik, Labegarrietako industrialde amaieraraino, Teileria zaharrreraino. Hemen Eibar-Gasteiz autobidearekin lotuko diren hainbat irteera egongo dira. Gainera, Deba ibaiaren gainean eraikiko den zubi baten bidez, Arrasatera doan GI-627 errepi-dearekin lotuko den beste irteera bat ere izango du.

## EIBAR-GASTEIZ

Bestalde, Eibar-Gasteiz autobideari dagokionez, Bergarako hegoaldeko iparralderainoko zatiko lanak ere esleitu dira. Lanok FCC Construcciones SA eta NEC-SO Entrecanales SAK osatzen duten aldi baterako enpresa batasunak egingo ditu. Obraren kostua 9.823.696.502 pezetakoa izango da eta 27 hilabetea amaitzea espero dute.

## Mayc SAko langileak lan-etenaldiak egiten ari dira

**Mayc SAko** langileek hainbat lan-etenaldi egin dituzte egunotan. Etenaldien arrazoia enpresako zuzendaritza erakusten ari den jarrera larderiatazalea salatzea da, hiru puntutan oinarrituz. Lehena: lan-egutegia inposatu egin nahi diete langileei, Altzariaren Hitzarmen Probintzialak ezarritako trami- tea errespetatu gabe, gainera, eta ilegala da; bigarrena: zuzendaritzak, produkzioa %34 handitzeko asmoa du, baina langileei plan industrialaren berririk eman gabe. Ez dute langileek jarraituko duten ziurtatu ere; hirugarrena: langileek muntaia distribuzio berrien aplikazioa negoziatu nahi duten arren, zuzendaritza ukatu egiten da.

Zuzendaritzak erantzunik eman ezean, langileek mobilizazioekin jarraituko dute.



## OHARRA BEZEROEI:



*Ramon Maria Liliko  
bulegoan arazo teknikoak  
ditugunez, aldi baterako  
bulegoa BELANBIDE KALEAN  
izango dugu. Ongi etorri, denok.*

### AGENTEA



**IRAEGI**  
ASEGURUAK

Telefonoak: 943 76 23 30  
eta 943 76 41 54  
Faxa: 943 76 41 54  
ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera:  
9.00-14.00 eta 16.00-20.00



**Ur-bide**  
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea  
BERGARA  
943 76 00 57  
630 261 617

# Berrigara

435 zenbakia.  
2001eko urtarrilaren 12a.

Irizar jauregia, Barrenkalea 33.  
20570 Bergara.  
Telefonoa: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta elektronikoa:  
berrigara@topagunea.com  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpidetza:** Nerea Lazpiur.  
**Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.  
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.  
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Juan Martin Elexpuru, Gorka Ugalde.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



## atrebentzia ezpada

### Beharpenei itxoitzeke ohiturarik badaukazu, ala biharran arabera erosten dittuzu erosi biharrekuak ?



**Arbiye Abalia**

Normalian, ez dot itxoitzen. Dana dala, eta erropiakini batez be, zoezer politta ikusi badot, batzuetan itxoin izan dot.



**Juan Carlos Gonzalez**

Ez daukagu beharpenetara itxoitzeke ohiturarik. Oso gutxitan erosten dogu beharpenetan. Biharra daukagunian erosten dogu.



**Pilar Fernandez**

Bai, itxoin egitten dot. Dana dala, ez naiz edozein lekutara joaten. Ezagutzen dittudan dendetara bakarrik.



**Narciso Millan**

Normalian ez dogu itxoitzen. Baiña, atzo, esaterako, Donostian egon giñan eta bi jertse erosi giñuzen.



**Arrate Garaikoetxea**

Batzuetan, erosten dot beharpenetan. Baiña, erosten doten horren biharra daukatelako eta prezio onian baldin badago. Bestela, ez.



**Juan Jose Lopez**

Ez naiz beharpenetara juten. Lehenago pikatzen neban noizian behin. Gaur egun, ez; eta juten banaiz, zoezer bihar dotelako da.

## tira biraka gorka ortega & jon alvarez



adituen esanetan

kaleen izenak

## Aho-higienea

Betidanik, eta askotan, entzun dugun arren, azpimarratzekoa da zein garrantzitsua den hortzak, eta oro har ahoa, zaintzea. Ahoko eta hortzetako gaitz gehienak, ehuneko ia ehunean, prebeni daitezke, egunero behar bezala zaintzen baditugu.

Egunean hiru aldiz garbitu beharko genituzke hortzak, gutxienez; hau da, jatordu bakoitzaren ondoren. Ideala, hala ere, zerbait jaten dugun bakoitzaren garbitzea da. Ohitura handia dugu tarteka zerbait jateko, eta noski, ez ditugu beti hortzak garbitzen. Gainera, tarteka jaten ditugunak, askotan, jaki gozoak izaten dira, eta horiek dira, hain justu, kalterik handiena egiten diotenak gure ahoari. Izan ere, azukreek ahoko bakteriak elikatzen dituzte. Bakteriek, nahikoa azukre dutenean, azidoak sortarazten dituzte, eta azidoek, berriz, hortzak kaltetzen dituzte. Beraz, zenbat eta gozo gutxiago jan, hobeto.

Hortzak garbitzeko garrantzitsua da hortzetako eskuila on bat erabiltzea. Jende askok usate duenaren kontra, eskuila gogorak ez dira batere onak, oiei kalte egiten baitiete. Beraz, eskuilak biguna, leuna, izan behar du. Gainera, hortzak garbitzeaz gain, mingaina ere eskuilatu egin beharko genuke. Kontuan hartu behar da mingainean pilatzen dela bakteriak gehien, ahoan; eta es-



JON VALERA

Dentista


*"Jaten dugun bakoitzaren hortzak garbitzea litzateke ideala, baina egunean hiru aldiz garbitzearekin nahikoa da"*

kuilarekin bakteriak horiek ezabatu egiten ditugu.

Erabili beharreko hortzetako pastari dagokionez, berriz, edozein marka ezaguneko pasta da ona. Baina, hori bai, fluorra eduki dezala. Fluorra oso garrantzitsua da: azidoen eraginez galtzen joaten den esmaltearen orde, askoz esmalte gogorragoa sortzen du fluorrak. Horrela, txantxarra prebenitzen du.

Hortzetako haria ere oso gomendagarria da. Egunean behin erabili beharko genuke, eskuila iristen ez den

tokietara iristen da-eta haria. Bestalde, kolutorioek (ahoa garbitzekoak) ahoko infekzio txikiak prebenitzen laguntzen digute, eta egunero erabili beharko genituzke hauek ere.



Zainketa egoki batekin, gaitz gehienak prebeni daitezke.

## Bergarako kale izendegia ezagutzen

Izenburu honekin udal agiritegiak gure herriko kaleen izenei buruzko informazioa ezagutarazi nahi du. Agiritegian dauden dokumentuak aztertu ditugu eta jaso dugun informazioa plazaratzeko artikulua sorta bat egitea iruditu zaigu aproposena.

Kale izenak aztertuta, bi motatako informazioa lortzen dugu; alde batetik, kale berriak noiz egiten diren ezagutu eta, bestetik, aldaketa politikoek kale izenetan duten eragina azaldu.

Lehen kasuan, hau da, kale berrien sorrerakoan, gure herrian 1840-1850eko hamarkadan urbanizazio lanak egin ziren eta Komenio, Espoioia, Irizar eta San Pedro plaza egokitzen dira.

Bestean, kale izenekoan, aldaketa politikoaren adierazgarri direnekoak ere badauzkagu Bergaran; kasu, 1932ko apirilaren 7an, Victor Ignacio Zubizarreta alkate abertzalea zegoenean, Bideberri berdin uztea erabaki zen (Sanchez Toca izena ez da onartzen), eta Pi y Margall eta Sabino Arana y Goiri izenak onartu ziren. Gerra garaian berriz ere aldaketak izan ziren. Ruiz de la Prada alkate zenean, 1937ko irailaren 15ean, España pasealekua, Navarra pasealekua eta Moscardo generalaren kalea izenak erabaki ziren.

Franco hil ondoren, lehenengo udal hauteskundeak 1979an izan ziren eta Jose Antonio Zabala alkate izendatu zuten. Udalbatza honek egindako lanen artean, kale izendegia zuzentzea eta finkatzea dago; horretarako, batzorde bat eratu zuten eta bere helburuak kaleen izenak birmoldatzea, ortografia finkatzea eta toki berriei izenak ipintzea izan ziren. Batzordearen proposamena udaleko osoko bilkuran onartu zen 1980ko urriaren 30ean, eta 1981eko urtarrilaren 1ean indarrean ipini zen. Erabaki hau ezagutarazteko, Bergarako Udalak 1982an "Bergara:kale izendegia" argitaratu zuen.

Lehen artikulua, datorren astekoan, Komenio kaleari buruzkoa izango da.

**Arantzazu Oregi**

Udal artxibozaina

## Pintura erakusketa

Urtero bezala, aurtengo Gabonetan ere, **Bearteko artisten erakusketa** izan da; abenduaren 22an hasi eta hilaren 31 arte egon dira ikusgai **40 pintore** bergararren margolanak. Aurtengo honetan, ez da eskultoreen erakusketarik egon, beste urteetan bezala. Argazkian ikus daitekeen moduan, inauguraziora gerturatu zirentzat, lunch ederra prestatu zuten Beartekoek.



## Mariskadak Gabonetan

**AEK** eta **Bergarara Plataformak** urtero zozkatzen dute itsas-jan bat. AEKren kasuan, 1.770 zenbakia izan zen saritua, **Jordi Torres eta Izaskun Unamunoren** txartela. Bergarara Plataformaren zozketan, berriz, 3.044 zenbakia, **Jose Luis Sasiainena**. Zorionak, bada, guztioi!



## Bost erakusleihori saria

Aurreko **BERRIGARAN** jakinarazi genizuen moduan, **bost denda** hauek jaso dute aurtengo Gabonetan udalak eta Bedelkarrek antolatutako **erakusleihori lehiaketako saria**: Alga lurrin denda, Kilika dekorazioa, Ninika loradenda, Gisasola burdindegia eta Manso optika. Joan zen martitzenean, urtarrilaren 9an, egin zen **sari banaketa** Kultura Etxean. Hantxe izan ziren dendetako arduradunak, **Rufina Olasagasti** kultur teknikaria, **Nere Amaia Zabala** kultur zinegotzi berria eta **Xabier Mujika** Bedelkarreko presidentea.



☎ 943 76 20 61

### BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

### OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

PINTXO eta BOKADILOK SEKULAKO MARTXA!!

### EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

**DEBA GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefono Aranzadi, 2-behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**Etxebizitza berriak Antzuola erdialdean**

- Aparteko lekuan eta ingururik ederrenera begira
- Primerako materialekin jasoak

### GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

**Iñaziok orain dala sei urtetik dauka Sirimiri jatetxia. Administraziño eta enpresa ikasketak egin zittuen, eta orain bere negozioaren jabe da. Jaiotzez plazentziarra da, baiña Bergaran bizi da. 39 urte dauzka eta ezkontuta dago.**

**Nolatan etorri ziñan Bergarara?**

Lanagaittik; jatetxia hartzeko aukeria euki giñuan eta animatu egin giñan.

**Sukaldarixan lana oso gogorra ei da.**

Bai, gogorra da, oso sakrifikaia; ordu asko sartu behar dira eta jaiogun gutxi dauzkagu.

**Orain sukaldari ezagun asko dago.**

**Zein dozu gustokuen?**

Arzak eta Subijana.

**Gabon gabian zer jan ziñuen etxian?**

Hasieran, pikatzeko zer edo zer, eta gero bakailaia, urtero moduan.

**Zure etxian zeñek egitten dittu sukaldari lanak?**

Amak.

**Janaririk gustokuena?**

Danetik gustatzen jat, batzuk beste batzuk baiña nahixago izaten dittut, baiña gustau, dana.

**Eta edateko?**

Ardu beltza.

**Behi gaixuen arazo honekin, jendiak gutxiago eskatzen dau okelia?**

Ez, ez da igartzen.

**Bergararrok exijentia gara jan kontutan?**

Beste guztixen antzera; ordaintzen dozun tokixan, exijitu be egin bihar da.

**Kirolzalia zara, ezta?**

Bai, batez be pelotia gustatzen jat.

**Pilotaririk gustokuena?**

Eugi eta Beloki, esaterako.

## Iñazio Larrañaga

**Frontoira puruarekin eta poltsikua beteta juaten diran horietakua zara?**

Ez, ez daukat apostatzeko ohiturarik. Gaiñera, ez naiz frontoira askotan juaten.

**Eta praktikatzen dozu kirolen bat?**

Orain, asko ez, baiña asko gustatzen jat igarixan egittia.

**Kolore bat?**

Urdiña.

**Usain bat?**

Larrosiarena.

**Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?**

Ibiltzia, pasiatzia; Mekolalde aldera juaten naiz askotan.

**Pelikula bat?**

*El silencio de los corderos.*

**Irakurri dozun azkenengo liburua?**

*El mundo como lo conocí.*

**Telebista, irratixa ala egunkarixa?**

Hirurak. Goizian, jaiki eta irratixa pizten dot. Egunkarixa egunero irakurtzen dot, eta gabian telebista ikusten dot.

**Zelan hasi ziñuan urtia?**

Ondo; oraingo, behintzat, ondo doia.

**Urte berrixari zer eskatu jatzu?**

Lanian, orain arte bezala, gauzak ondo juatia; eta Euskal Herrixan ia pakia lortzen dogun.



### Olentzero arrakastatsua Aranzadi ikastolan

**O**hi dugun bezala, joan zen abenduaren 24an **Olentzero eguna** ospatu genuen. Bai plazan eta bai Poligonoan benetan **pozteko partehartzea** izan zen guraso, ikasle eta irakasleen aldetik, eta kaleak alaitu genituen musikaz eta kantuz. Bukaeran ere giro ederra izan genuen salda beroa eta txorizoa dastatzen genuen bitartean. Denak zoriontzeko moduko egun arrakastatsua.

**Zorionak eta urte berri on denoi Aranzadi ikastolaren partez.**





# Otsail amaierarako zabalik

**Abenduaren 15ean igerilekuetako aire girotuaren hodi zati bat eta sabai zati bat erori ziren igerileku handira. Ordudanik, itxita daude igerilekuak. Teknikariek aire girotuaren eta sabaiaren egoera aztertu dute, konpontzea merezi duen ala ez erabakitzeko. Izan ere, gogoratu behar da Agorringsingo kirol gune berria egingo dela, eta oraingoa bota. Azkenik, eguen eguerdian, konpontzeko erabakia hartu zuen udalak.**

**I**stripua gertatu bezain laster, Labein enpresarekin jarri zen harremanetan udala, eta aire girotuaren instalazioaren egoera aztertu ondoren, sabaiarena ere aztertu dute teknikariek. Iñaki Ugarteburu udaleko kirol teknikariak BERRIGARARI azaldu dienez, "aire girotuaren hodiak konpontzeko aurrekontua eginda dago, eta ikusi dugu onartzeko modukoa dela".

Baina, Kirol Zerbitzuko beste kezka bat sabaiaren beraren egoera zen, aurreko beste txosten batean ere egoera kaskarrean zegoela ikusi zen eta; eguean bertan jaso zituen emaitzak udalak. Adituen txosten horretan oinarrituta hartu dute udaleko arduradunek euren erabakia. Iñaki Ugartebururen esanetan, sabaiaren egoera ez da oso ona, eta konponketa beharrean dago. Ho-

regatik, eta "segurtasunari dagokionean erabateko bermea ziurtatu digutenez, konponketak egitea erabaki dugu", esan digu Iñakik. Behin aire girotuaren instalazioa eta sabai konponduta, segurtasun sare bat jarriko dute, adituen gomendioari jarraituz. Datoren astean bertan hasiko dira konponketa lanak, eta Ugartebururen arabera, "lehenbailehen irekiko dira igerile-

## ETXE BERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## MUJIKÀ

**U**  
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE  
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

kuak; otsailerako lanekin bukatu eta zabaltea espero dugu”.

### AGORROSINEN KIROLGUNE BERRIA

Gogoratu beharra dago Agorrosingo kirolgune berria egiteko prozesua abian dela. Iazko urrian kirolgunea egiteko ideia lehiaketa deitu zuen Bergarako Udalak. Aurkeztu zirenen artean, zortzi enpresa aukeratu ziren eta zortzi enpresok aurreproiektua egiten dihardute. Hemendik bi hilabetera aurkeztuko dira aurreproiektuok, eta orduan erabakiko da lanak zeini esleitu. Behin proiektuaren diseinua esleitzen denean, lau bat hilabete izango ditu enpresa horrek behin betiko proiektua egiteko. Beraz, behin-behineko konponketok egin ala ez, zalantzan egon dira arduradunak. Izan ere, konponketok egiteak kostu handia eta segurtasun bermerik eskaintzen ez balie, itxita jarraituko lukete igerilekuek. Ugartebururen esanetan, “milioi mordo bat gastatzeak ez zeukan zentzurik, hemendik hilabete batzuetara instalazio berriak egin behar direnean”.

Udalak ideia lehiaketa deitu zuenean, hainbat irizpide finkatu zituen. Zein beharizan zegoen azertu, eta horren arabera finkatu zituen irizpideok. Kirol Zerbitzuko arduradunek argi eta garbi daukate instalazio bakar bat nahi dutela, hau da, uda zein negurako bakarra, estalki batekin. Bestalde, igerileku handia karratua izango da, 25 metro zabalera eta beste 25 luzeran. Beste igerileku txiki bi ere egongo dira, eta horie-



Igerilekuetako sabaian geratutako zuloa.

tako bat jolasgunea izango da. Hala ere, urtarrilaren 29an herriko kirol taldeekin batzarra egitekoak dira udaleko arduradunak, euren iritzi eta proposamenak entzuteko.

### BAZKIDEENDAKO AUKERA

Kontuak kontu, igerilekuak itxita egon arren, bestelako zerbitzuak, gimnasio-

ak, sauna eta masaje gela, irekita daude. Baina, igerilekuetan jende asko ibili ohi da egunero. Guztira, 4.200 bazkide inguru ditu Bergarako udal igerilekuak. Oraingoan, 2001erako bazkide txartelik ez du egin udalak. Otsailerako, hala ere, igerilekuak irekitzen direnerako, bazkide txartela egiteko deialdia zabalduko du udalak. Baina, egoera horri behin-behineko konponbide bat eman nahi izan diote arduradunek; horrela, urtarrilean inguruko herrietako igerilekuetara joateko aukera izango dute iaz bazkide txartela zuten guztiek. Izan ere, Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuko arduradunak inguruko herrietako udalekin harremanetan jarri, eta akordioa egin dute Oñati, Eibar, Mondragoe eta Aretxabaletako udalekin.

### KEXA UGARI

Arduradunen esanetan, igerilekuak itxita dauden denbora honetan, jende asko gerturatu da bai udaletxera eta bai igerilekuetara ere euren kexa azaltzera. “Normala da; jende askok egunero-egunero igerilekuetara joateko ohitura du, eta bat-batean igerilekurik gabe gertatzerakoan, euren kexa azaltzera eta informazioa eskatzera jende asko etorri zaigu”, esan digu Iñakik.<

## Urtarrilean, iazko bazkideek inguruko herrietako igerilekuetara joateko aukera dute



Amillaga, 23, gasolindegia ondoan.  
BERGARA  
943 76 15 59

Eguneko menua • Kartara • Plater konbinatuak  
Berezitasunak: bakailoa pil-pil erara, langostinoak

### OHARRA

Aurrerantzean,  
domeketan  
itxita  
egongo da.

### GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5  
☎ 943 76 20 34



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

### IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
FAXA: 943 76 09 32

## Bergarak Amorebieta izango du arerio zapatuan Agorrosinen

**Bergara eta Amorebieta futbol taldeak aurrez aurre izango dira bihar Agorrosinen, 15:45ean. Zornotzarrek liga hasiera kaskarra izan zuten, baina azken garaipenaren ondoren, mahoneroen aurretik sailkatu dira, 8. tokian, 30 punturekin. Bergararak 9. tokian dira, 26 punturekin.**

Bergarak Lemoa liderraren aurka galdu zuen domekan (2-0), bigarren itzuliko lehenbiziko partiduan. Juanina Garai entrenatzailearen arabera, Bergarak partidu ona jokatu zuen domekan, baina ez zuten zortirik izan. Lehen itzulera 29 puntu lortzea zen mahoneroen

helburua, eta azkenean 26 punturekin konformatu behar izan dira. Aurreko denboraldian, lehen itzulera, 20 puntu eskuratu zituen Bergarak, eta sasoi hartan sailkapeneko azken tokietan zegoen. Aurten, esan bezala, orduan baino sei puntu gehiago eskuratu ditu. Garaiaren hitzetan, "liga amaieran gure helburua 45 puntura heltzea da, inolako arazorik ez izateko. Taldea ondo ikusten dut eta bide onetik goazela esango nuke. Beharbada, orain arte puntu gehiago merezi izan ditugu. Biharko partidua zaila izango da, baina hiru puntuak eskuratzeko asmoz zelairatuko gara. Joaneko partiduan 0-1 irabazi genien, azken minutuan epai-leak adierazitako penalti bati esker, baina oso partidu parekatua izan zen".

Biharko partiduari begira, Bergarak bi baja izango ditu: lesionaturik dauden Jokin Mendiaratz eta Unai Uribesalgo "Txara".

**2. ERREGIONALA, AURRERA**  
Bestalde, nahiz eta domekan Zestoaren aurka 2-3ko emaitzarekin galdu Agorrosinen, bigarren erregionaleko Bergarako futbol taldea igoera fasea jokatzeko sailkatu da.



Argazkian, Juanina Garai Agorrosinen jokotutako partidu batean.

### Emaitzak

Lehen itzulera 2.a

|                          |     |     |
|--------------------------|-----|-----|
| Bergara - Lemoa          | 2-1 | 0-2 |
| Amorebieta-Bergara       | 0-1 | ... |
| Bergara-Bermeo           | 2-0 | ... |
| Sestao-Bergara           | 2-1 | ... |
| Bergara-San Pedro        | 0-0 | ... |
| Arenas-Bergara           | 1-0 | ... |
| Bergara-Real Union B.    | 3-2 | ... |
| Aurrera Ondarroa-Bergara | 3-1 | ... |
| Bergara-Alaves C         | 2-2 | ... |
| Hernani-Bergara          | 2-2 | ... |
| Bergara-Aurrera Vitoria  | 0-0 | ... |
| UPV -Bergara             | 2-1 | ... |
| Bergara-Real             | 1-0 | ... |
| Sodupe-Bergara           | 1-1 | ... |
| Bergara-Zalla            | 1-0 | ... |
| Durango-Bergara          | 2-0 | ... |
| Bergara-Lagun Onak       | 0-2 | ... |
| Bergara-Baskonia         | 0-2 | ... |
| Zamudio-Bergara          | 0-1 | ... |

### Jokalariak

|                     | Jokatuak | Titularra | Minutuak | Txartelak | Golak |
|---------------------|----------|-----------|----------|-----------|-------|
| <b>ATEZAINAK</b>    |          |           |          |           |       |
| Markel Egaña        | 18       | 18        | 1.620    | -         | 23    |
| Arkaitz Gainzarain  | 2        | 2         | 180      | -         | 1     |
| <b>DEFENTSAK</b>    |          |           |          |           |       |
| Txonan Gallastegi   | 16       | 15        | 1.306    | 5h        | -     |
| Unai "Txara"        | 7        | 5         | 535      | 2h        | -     |
| Aritz Arabiourrutia | 19       | 19        | 1.688    | 7h        | 4(2p) |
| Ander Berraondo     | 14       | 14        | 1.267    | 2h        | -     |
| Asier Rodriguez     | 16       | 15        | 1.312    | 7h        | -     |
| Mikel Osoro         | 6        | 3         | 406      | 2h        | -     |
| Etor Laskurain      | 8        | 8         | 719      | 1g1h      | -     |
| Luis Blanco         | 3        | 0         | 71       | -         | -     |
| Xabier Lete         | 1        | 1         | 18       | -         | -     |
| Oier Loiola         | 1        | 1         | 90       | 1h        | -     |
| <b>ERDILARIAK</b>   |          |           |          |           |       |
| Arkaitz Arana       | 18       | 16        | 1.468    | 1g8h      | -     |
| Josetxo Lizarralde  | 18       | 18        | 1.594    | 5h        | 4     |
| Jokin Mendiaratz    | 12       | 12        | 1.042    | 3h        | -     |
| Unai Rollan         | 6        | 6         | 435      | -         | 1     |
| Iñigo Iriarte       | 6        | 0         | 132      | 1h        | -     |
| Oskar Maiztegi      | 5        | 2         | 273      | -         | -     |
| Mikel Altuna        | 1        | 1         | 90       | -         | -     |
| <b>AURRELARIAK</b>  |          |           |          |           |       |
| Koldo Erostarbe     | 19       | 17        | 1.679    | 9h        | 2     |
| Paco Santiago       | 16       | 11        | 951      | 1g6h      | 2     |
| Gorka San Vicente   | 19       | 14        | 1.077    | 1h        | -     |
| Igor Errasti        | 18       | 16        | 1.456    | 1h        | 5     |
| Joseba Duran        | 4        | 1         | 65       | -         | -     |
| Igor Larrañaga      | 3        | 0         | 58       | 1h        | -     |
| Igor Alberdi        | 13       | 4         | 332      | 1h        | 1     |

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6.pabilioia.  
ARRASATE. 943 71 25 08

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



# Herriko gimnastak Espainiako txapelketan

**Ipuruia taldea** ordezkatuz, Jaione Igartua eta Ane Miren Fernandez gimnasta bergararrek hirugarren postua eskuratu zuten Espainiako gimnasia erritmikoko txapelketan, gazte mailan. Abenduan Malagan jokatu-tako txapelketan Aintzane Narvaez antzuolarra eta Leire Lasa bergarra ere aritu ziren, junior mailan, hain zuzen ere. Lehenbiziko egunean Ipurua taldeak aurreneko postuetan sailkatzeko aukerak galdu zituen. Bigarren eguneko saioan zortzigarren tokian geratu ondoren, junior taldeak 13. tokia



Argazkian, Ipuruako gazte mailako taldea.

eskuratu zuen. Kategoria bakoitzean Espainiako Estatu osoko 35 bat talde izan ziren lehian. Lehen mailako

jubenilen mailan Ipurua taldeak txapelketa irabazi zuen, 10 talderen artean nagusituz.

## Diputazioak Kirola Euskaraz saritu du

**Gipuzkoako Foru Aldundiak** Felix Iñurra-tegi saria eman zion Debarroko Kirola Euskaraz programari, azken urteetan kirol arloan euskararen erabilera bultzatzeko egindako lanagatik. Debagoieneko eta Debabarreneko kirol eta euskara udal zerbitzuek 1993. urtean jarri zuten

abian Kirola Euskaraz programa. Orduetik hona, sentiberatasuna piztu, euskarazko kirol materialaren sorkuntza eta monitore eta irakasleen heziketa izan dira programaren ardatz nagusiak. Euskal Herrian programa aitzindaria izan da.

### karteldegia

#### FUTBOLA

##### Bergara-Arrasate

Ohorezko kadeteak  
Zapatua. 12:00. Ipintza

##### Bergara-Amorebieta

Hirugarren maila  
Zapatua. 15:45. Agorrosin

##### Bergara-Aretxabaleta C

Bigarren mailako kadeteak  
Zapatua. 17:45. Ipintza

#### ESKUBALOA

##### Bergara-Beasain

Kadete mutilak  
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

##### Bergara-Urola

Jubenil mutilak  
Domeka. 10:45. Kiroldegia

##### Bergara-Ormaiztegi

Senior mutilak  
Domeka. 12:15. Kiroldegia

#### SASKIBALOA

##### Bergara-Goierri

Kadete mutilak  
Zapatua. 12:15. Kiroldegia

##### Bergara-Beasain

Jubenil mutilak  
Domeka. 12:15. Mariaren Lagundia

#### PILOTA

##### Bergara-Gasteiz

Jubenil banaka

##### Bergara-Intxaurren

Senior banaka  
Bihar, larunbata, 12:00etan  
Udal Pilotalekuan

# CAMACHO

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA  
☎ 943 76 13 35

## Usoa Pub



☎ 943 76 38 57  
Irala 1

# ZAPELAITZ TABERNA

Gaur, egubakoitza, berriro ere


# zabalik!

Luncha, 19:00etan. Ongi etorri, denoi!

Leizariako San Lorentzo 25

## POL-POL Taberna

943 76 07 78





# Labegaraietako futbito txapelketa

## EMAITZAK

### A MULTZOA

|                         |     |
|-------------------------|-----|
| Torrekua-Apa Oxemai     | 7-5 |
| Buya-Fac                | 1-6 |
| Bar Canalejas-Pagomendi | 6-1 |
| Eri-Irubide             | 6-4 |

### B MULTZOA

|                         |     |
|-------------------------|-----|
| Amilotx-Manitou         | 4-5 |
| Ortzi-Aluminios Kresala | 7-3 |
| Bayer-Vacalouras        | 3-4 |
| Etengabe-Agirrebeña     | 7-9 |

### C MULTZOA

|                           |      |
|---------------------------|------|
| Shaktale-Komando Piperrak | 7-10 |
| Txipiron-Mongatxurak      | 8-12 |
| A Ze Flaxa-Mo(ko)lotov    | 26-1 |
| Patxaran Team-Guadalest   | 3-6  |

## PARTIDUAK

### ZAPATUAN, BARRUAN

|                                  |            |
|----------------------------------|------------|
| 9:30: Vacalouras-Amilotx         | Artusamak  |
| 10:30: Artusamak-Mongatxurak     | Amilotx    |
| 17:30: Pinturas Bergara-Etengabe | Manitou    |
| 18:30: Manitou-Aterpe            | A Ze Flaxa |
| 19:30: Ezinleike-A Ze Flaxa      | Aterpe     |

### DOMEKAN, BARRUAN

|                                  |            |
|----------------------------------|------------|
| 9:15: Latex-Txipiron             | Ortzi      |
| 16:00: Bildurbarek-Bar Canalejas | Eri        |
| 17:00: Bar Ugarte-Eri            | Apa Oxemai |
| 18:00: Apa-Oxemai-Amoskibar      | Cine Bank  |
| 19:00: Cine Bank Irimo-Bayer     | Amoskibar  |

### DOMEKAN, KANPOAN

|                                  |            |
|----------------------------------|------------|
| 10:30: Kanpazar Harrobia-Ortzi   | Txipiron   |
| 11:30: Pagomendi-Errotagain      | Torrekua   |
| 12:30: Irubide jatetxea-Torrekua | Errotagain |

## ARGI!

### Mo(ko)lotov taldeari zigorra

Mo(ko)lotov taldeari hiru puntu kendu dizkio antolaketa batzordeak partidu bat arbitratzera ez aurkezteagatik. Hurrengoan txapelketatik kanporatuko dituztela adierazi dute antolatzaileek.

### Izen aldaketak

B multzoko bi taldek izena aldatu dute. Tom Cat Argandolas zenak Aluminios Kresala izena dauka orain eta Suntsitzaileak taldeak Cine Bank Irimoren publikitatean eramango du aurreantzean.

## mahoneroak



LUIS BLANCO  
BKEko jokalaria

Azken bi partiduetan aurkari zailak izan ditugu, Zamudio eta Lemoa, biak etxetik kanpo, gainera. Gabonen atarian partidu ona jokatu genuen sailkapeneko aurrealdeko tokietan dagoen Zamudioren aurka, eta, asko borrokatu ondoren, hiru puntuak eskuratu genituen. Zortea ere gure alde izan genuela esango nuke.

Domekan, bestalde, Lemoa liderraren aurka galdu genuen (2-0). Egia esateko, Lemoak ez zuen beste munduko ezer erakutsi eta gutxienez berdinketa lortzeko meritua egin genituela uste dut. Markagailuan atzetik ginela, aukera paregabea izan genuen banakoa lortzeko. Horrez gain, epaileak ere beraien alde egin zuen eta amaieran gure kontra adierazi zuen penaltia nahiko eztabaidagarria izan zen. Bigarren zatian aurrera egin genuen zerbait lortzeko asmoarekin, baina zorterik gabe.

Kontuak kontu, zapatuan Amorebieta hartuko dugu etxean eta ezinbestekoa da irabaztea.

### Bar Canalejas, Ortzi, Komando Piperrak

Bar Canalejasek bigarren postua eskuratu du Pagomendiri irabazi ondoren. Ortzi indartsu jarraitzen du eta K.Piperrak Shaktaleri irabazi zion.



**GORA eta BEHERA**



### Buya, Pagomendi, Mo(ko)lotov

Buya eta Pagomendi taldeek emaitza berarekin galdu zuten azken jardunaldian: 6-1. Mo(ko)lotovek gol zaparradirik handiena jaso zuen: 26-1!

## SAILKAPENA

### A multzoa

|                         | P  | J  |
|-------------------------|----|----|
| 1. Bar Ugarte           | 27 | 10 |
| 2. Bar Canalejas        | 22 | 10 |
| 3. Pagomendi            | 22 | 10 |
| 4. Bildurbarek Opel Lam | 19 | 10 |
| 5. Errotagain           | 19 | 10 |
| 6. Amoskibar            | 15 | 10 |
| 7. Fac                  | 13 | 10 |
| 8. Eri                  | 12 | 10 |
| 9. Apa Oxemai           | 7  | 10 |
| 10. Buya                | 7  | 11 |
| 11. Torrekua            | 6  | 10 |
| 12. Irubide jatetxea    | 4  | 9  |

### B multzoa

|                         | P  | J  |
|-------------------------|----|----|
| 1. Aterpe               | 28 | 10 |
| 2. Ortzi                | 25 | 10 |
| 3. Manitou              | 22 | 10 |
| 4. Kanpazar             | 19 | 10 |
| 5. Aluminios Kresala    | 17 | 10 |
| 6. Pinturas Bergara     | 13 | 9  |
| 7. Amilotx              | 13 | 10 |
| 8. Vacalouras           | 7  | 10 |
| 9. Bayer                | 6  | 10 |
| 10. Eengabe             | 4  | 9  |
| 11. Cine Bank Irimo     | 4  | 9  |
| 12. Agirrebeña jatetxea | 3  | 9  |

### C multzoa

|                     | P  | J |
|---------------------|----|---|
| 1. A Ze Flaxa       | 21 | 9 |
| 2. Mongatxurak      | 21 | 8 |
| 3. Artusamak        | 16 | 8 |
| 4. Komando Piperrak | 16 | 9 |
| 5. Guadalest        | 15 | 9 |
| 6. Shaktale         | 13 | 9 |
| 7. Ezinleike        | 9  | 7 |
| 8. Mo(ko)lotov      | 7  | 8 |
| 9. Patxaran Team    | 7  | 9 |
| 10. Txipiron        | 4  | 7 |
| 11. Latex           | -1 | 9 |

Informazio hau babesle hauei esker:

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza  
2A behea ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19

# Otsein Saria

Sailkapen orokorra:

|                    |          |
|--------------------|----------|
| Aritz Arbiourrutia | 10 puntu |
| Txonan Gallastegi  | 7 puntu  |
| Koldo Erostarbe    | 6 puntu  |
| Ander Berraondo    | 5 puntu  |
| Jokin Mendiartz    | 5 puntu  |
| Markel Egaña       | 5 puntu  |

Etxeke partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

# GASTON Y DANIELA



**Inglesina**<sup>®</sup>



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala

## Loramendi kirolak

# %30

- Forro polarrak
- Prakak
- Txamarrak
- Sudaderak eta abar

# BEHERAPENAK!

Zapatilak

# %20-50

San Andresen eta Garibain

**ARRASATEN**



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZ 1998

## bonofotoa

Zein da datorren astean bere eguna ospatuko duen ermita honen izena?

## galde debalde

1. Zenbat bazkide ditu Errotalde jauregian dagoen Bergarako Udal Liburutegiak?  
A- 2.000  
B- 1.100  
C- 2.100

2. Noiz erori ziren hodi zati bat eta sabai zatia Bergarako igerilekuetan?  
A- Abenduaren 5ean  
B- Abenduaren 31n  
C- Abenduaren 15ean

3. Usoa Mendikute herriko artistaren zenbat lan daude Kultura Etxean?  
A- 23 pintura eta 2 eskultura  
B- 23 pintura eta 3 eskultura  
C- 23 pintura eta 4 eskultura



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Ramon Agirrentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Ramoni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:  
Bonofotoa: **Ibargarai kalea**  
Galde Debalde: **1-A, 2-A, 3-B**

### BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Urzantesol**  
ekilore olioa, litroa  
**100 PTA!**  
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

# Nazioarteko organo kontzertuak San Pedro parrokian udalaren eskutik

Lau izango dira eta Azkoitia eta Bergarako udalek antolatuko dituzte

**Lehenengo kontzertua gaur, egubakoitza, izango da, arratsaldeko 8etan. Johannes Skudlik organista alemaniarrek eskainiko du. Guztira, lau kontzertu izango dira eta nazioarteko musikariek parte hartuko dute.**



Johannes Skudlik alemaniarrek eskainiko du gaurko kontzertua.

Azkoitiko eta Bergarako udalek elkarlanean antolatu dituzte nazioarteko organo kontzertuok. Bergaran lau kontzertu egongo dira: bi urtarrilean eta bi otsailean, eta nazioarteko organistek hartuko dute parte. Lehenengo kontzertua gaur, egubakoitza, izango da, eta Johannes Skudlik alemaniarrek eskainiko du. Bigarrena 20an, Jose Luis Etxetxia nafarraren eskutik.

Azken biak otsailean izango dira. Bata otsailaren

3an eta bestea 17an. Otsaileko lehenengo organo kontzertua Klaudio Brizzi italiarrak eskainiko du eta Thomas Indermühle suitzarrak izango du lagun oboearekin. Azkeneko emanaldia Aitor Olea gipuzkoarrak eskainiko du, eta berarekin batera Bergarako Orfeoia

eta Arrasateko Goikobalu abesbatza arituko dira.

Kontzertu guztiak San Pedro parrokian izango dira, 20:00etan.

## JOHANNES SKUDLIK

Alemaniar horrek irekiko du organo kontzertuen sorta. 1957an jaio zen eta orga-

no, piano eta zuzendaritza ikasketak egin zituen Municheko Musika Eskola Nagusian. Landsbergeko Oratorio abesbatzaren, Landsbergeko Madrigal abesbatzaren eta Municheko Con Brio areto orkestraren zuzendari izan da. Abesbatza horiekin Haydn, Brückner, Schubert eta Pucciniren lan handiak interpretatu ditu. Peter Schreier, Hermann Prey eta beste zenbait musikagilerekin lan egin du, eta organo edo klabezinista gisa kontzertuak eskaini ditu Alemanian, Austrian, Frantzian, Espainian, Suitzan, Ingalaterran eta Estatu Batuetan. Organista gonbidatua izan da Kopenhage, Zurich,artzelona, Bourges eta beste hiri batzuetako jaialdietan eta Chicagoko eta Hardvardeko unibertsitateetan.

## Usoa Mendikute artistaren erakusketa Kultura Etxean

**Gaur, egubakoitza,** irekiko da, 19:30ean. 25 lan egongo dira ikusgai: 23 margolan eta bi eskultura. Margolanetan kolore lau eta biziak erabili ditu Usoa Mendikutek, eta "formari baino, koloreari garrantzi handiagoa" eman diola

azaldu du. Bestalde, erakusketako zortzi margolan ez dira pikturikoak soilik, objektuekin egindako konposizioak baizik. Eskulturrei dagokienez, bata igeltsu bandekin egindakoa da, eta bestea, sare metaliko eta azkoin eta torlojuekin.

Mendikute gazteak, pop-art estiloaren jarraitzailetzat du bere burua. Bere lanak ere, pop-art estiloen bezala, inguruko produktuetan oinarritzen direla azaldu du, baina, "nere marrazteko modura eramanda".



Usoa Mendikute.

# ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

# Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA



## Txirrindularitzazale taldea, 1981

**A**rgazkian agertzen den koadrila honek sasoitsu ekin zion 1981. urteari; izan ere, urtarrilaren 1ean, Urteberri egunean, atetarako argazkia da goikoa. Txirrindularitzazale hauek goiz hasi ziren denboraldia gertatzen eta Gorla elkartearekin elkartu ziren argazkia ateratzeko. Ez daki-gu egun hartan etapa menditsua egingo zu-

ten edo Gorlatik aldapan behera etorriko ziren... Argazkian agertzen direnetako batzuk Lokatza taldean eta Bergarako zikloturista elkartearekin ibilitakoak dira.

Horra hor zeintzuk diren argazkikoak, ezkerretik eskumara:

**Atzean:** Gurutz Arrieta, Patxi Bengoa, Angel Bideluze, Angel Perez, Enrike Mugu-

ruza, Joseba Ormazabal eta Luis Mari Egaña.

**Aurrean:** Jesus Mari Rueda, Markos Labaien, Ramon Gallastegi, Emilio Ucin eta Alex Labaien.

*Argazkia: Markos Labaien*

### ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!



## Zumelaga

JATETXEA

**58 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

*Zuri Beltz margoak*

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59




## MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25


## Samadhi yoga



YOGOTERAPIAREN ETA ERLAXAZIOAREN  
ZENTRUA

- ERLAXAZIO IKASTAROA  
Larunbatetan 10:15etik 11:15era.  
Urtarrilaren 20tik apirilaren 7ra
- YOGA IKASTAROA  
Larunbatetan 11:30etik 13:00etara.  
Urtarrilaren 13tik martxoaren 31ra
- Bi ikastaroak nahi duten guztiei zuzenduta daude adin mugarik gabe

Kruz Gallastegi, 2-behea.  
Tel. 639 235 753 / 943 76 11 38



**3.000.000** ibilgailu baino  
gehiago aseguratuta  
lasai-lasai errepidean



# Problemarik gabe

Egin kontuak! 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa gune



**MAPFRE**

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



# UGARTE

A R O Z T E G I A

- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



San Juan, 1 • (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxe: 943 76 54 91



**GRUPO**

**Amuebladora  
Mondragonesa**

**a eme Interiores**  
Garibai 9. 943 79 15 03

**Centro Hogar Muebles**  
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

**Sofa Leku**  
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

**a eme Sukaldeak**  
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

**ARRASATE**

